Alcalde - Alkatea
D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak
D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.
D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.
D. Arcadio Benitez Dávila jauna.
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.
D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Concejales - Zinegotziak
Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.
Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.
Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.
D. Josu Cristobal Churruca jauna.
Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.
D. Gorka Errasti Bernedo jauna.
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.
Dña. Eva Juez Garmendia andrea.
D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.
Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.
Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.
Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta Andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra
Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeita bian, arratsaldeko bostak izanik, Udal Batzarra bildu zen bilera berezian, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veintidós de diciembre de dos mil diecisiete y siendo las diecisiete horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

Ez dira etorri Abanzabalegui Aranguren eta Larrauri Arriaga andreak.

No asiste la Sra. Abanzabalegui Aranguren ni la Sra. Larrauri Arriaga.

1. ATALA

PUNTO 1º

2017ko urriaren 30ean Udalbatzak egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.

Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de Pleno Municipal celebrada el 30 de octubre de 2017.

Aguirre andreak hartu du hitza. Esan du 94. orrian ez daudela ondo jasota bere hitzak, alegia, Vildosolaren txaleta botatzeko aurri-espediente baten beharra dagoen ala ez adierazten den zatian.

Interviene la señora Aguirre para decir que no está bien recogida en la página 94 su intervención cuando se indica la necesidad o no de un expediente de ruina para la demolición del chalet de Vildosola.

Gaineratu du ez dakiela hala esan zuen ala ez, baina alderantziz esan zuela edo alderantziz esan nahi izan zuela; izan ere, aktan hauxe jasotzen da: "erantzuna izan da eraitsi egingo dela

Añade que no sabe si lo dijo o no lo dijo, pero que lo dijo al revés, o quiso decirlo al revés, porque el acta recoge “la respuesta ha sido que se demolerá y que no es necesario un expediente

eta ez dela beharrezkoa aurri-espedientea justifikaziorik gabe" eta, bere ustez, idazketa ez da zuzena, eta izango da “bota ahalko dela justifikaziorik gabe”, eta bere hitzak oker adierazi direla.

de ruina, sin ninguna justificación” y le parece que la redacción es incorrecta ya que será que sin ninguna justificación se podrá demoler, y que está tergiversada la expresión.

Alkate jaunak dio transkripzioa esandakoaren arabera egin ohi dela, eta Aguirre andreak dio ez diola zentzurik ikusten.

Afirma el señor Alcalde que generalmente, la transcripción se hace según lo dicho, indicando la señora Aguirre que no le ve sentido.

Idazkariak adierazi du ulertzen duela zer esan nahi zuen, baina interpretazioa dela, eta justifikaziorik gabe ezin dela eraitsi aurri-espedienterik gabe.

Indica la Secretaria que entiende lo que se deseaba decir, pero que es interpretar, y que es que sin justificación, no se puede demoler sin expediente de ruina.

Aguirre andreak dio berak hauxe esan nahi zuela: aurri-espedienterik gabe, bere ustez, ezin zela etxea eraitsi; eta hurrengo paragrafoan datorrena ere alderantziz dagoela bere ustez; alegia, esaten denean “baina informazioa jasoko duela jakiteko ea aurri-espedienterik gabe eraitsi daitekeen eta Kultur Ondarearekin hitz egin duela eta, printzipioz, haiek ez dutela eraikinak babes berezia daukan justifikaziorik” eta berak ez zuela hori esan; berak esan zuela haiek ez dutela Diputazioan, Donostian, babes berezia eduki ez izanaren justifikazio edo konstantziarik;

Afirma la señora Aguirre que lo que ella quería decir es que sin expediente de ruina, a ella le parecía que no se podía demoler, pero que luego se acompaña de algo que cree que también está al revés cuando en el siguiente párrafo se dice “pero que se va a informar sobre el que se pueda demoler sin un expediente de ruina y que ha hablado con Patrimonio Cultural y en principio ellos no tienen una justificación de que el edifico tenga protección especial” y que no fue esto; fue que a ellos no les constaba en Diputación, en Donosti, ninguna justi-

hau da, seguraski, dokumentu hori Udalean egon behar dela.

ficación de que no tuviera protección especial; es decir, que probablemente ese documento tiene que estar en el Ayuntamiento.

Alkate jaunak dio ez badute horren konstantziarik halakorik ez dagoelako izango dela, eta Aguirre andreak adierazten dio ez dagoela konstantziarik babes berezia kendu izanaz, eta justifikazio hori hemen egon beharko litzatekeela.

Indica el señor Alcalde que será que no le consta a la Diputación que el edificio tenga protección especial, rebatiendo la señora Aguirre que es que no les consta, que se haya suprimido la protección especial, y que esa justificación estaría aquí.

Laburbilduz — gaineratu du Aguirre andreak—, berak eskatu zien ea ba al zuten babes bereziko izaera kendu izanaren justifikaziorik, eta haiek ez omen zuten kendu izanaren justifikaziorik.

En definitiva, añade la señora Aguirre, que ella les pidió si tenían justificación de que se hubiera descalificado en cuanto a la protección especial, y ellos no tenían esa justificación de la descalificación.

Alkate jaunak dio argibide honekin eramango dela akta bozketara; idazkariak adierazi du argibideak izanik hobe dela halakotzat jasotzea saioaren aktan.

Afirma el señor Alcalde que se someterá a aprobación el acta con esa aclaración, indicando la Secretaria que al tratarse de aclaraciones, es mejor recogerlas como tales en el acta de esta sesión.

Akta-zirriborroa bozketara eramanda onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el borrador de acta, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Le-

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Le-

jardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo - Abanzabalegui Arangurenek delegatutako botoa ere eman du-, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

2. ATALA

Udal Lantaldearen 2016-2017 urteetako produktibitate-osagarriak: berrespena eta onespena.

Irizpen hau irakurri da:

"Udal honetan egin duen fiskalizazio-lanaren inguruko txostenean Herri Kontuen Euskal Epaitegiak gomendio hau eman du: produktibitate-osagarriak akordioetan banan-banan zehatz daitezela. Beraz, txosten horrek dioena kontuan hartuta, Langileria Lan Batzordeak

jardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila e Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo - quien ejerce también voto delegado por Abanzabalegui Aranguren-, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

PUNTO 2º

Ratificación y aprobación de los siguientes complementos de productividad de la Brigada Municipal del año 2016-2017.

Se da lectura al siguiente dictamen:

"A la vista del informe emitido por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas con ocasión de su función fiscalizadora llevada a cabo en este Ayuntamiento, en el cual recomienda que los complementos de productividad se especifiquen en los acuerdos indivi-

proposamen hau egiten dio Udal Osoko bilkurari:

- Alde batetik, Mantentze Lantaldearen 2016ko produktibitate-osagarriak berrestea; agiri honetan bertan jasotako osagarriak, alegia.
- Eta, bestetik, 2017ko produktibitate-osagarriak onartzea; horiek ere, agiri honetan bertan jasotakoak.

Bozketaren emaitza:
Aldeko bozkak: De los Toyos, Larrauri, Benítez, Telleria, López de Guereñu eta Garate jaun-andreena.

Abstentzioak: Astigarraga andrerena eta Errasti jaunarena."

dualmente, la Comisión de Trabajo de Personal propone al Pleno:

- Ratificar los complementos de productividad de la Brigada de Mantenimiento del año 2016 recogidos en el documento adjunto.
- Aprobar los complementos de productividad correspondientes al año 2017 recogidos en el documento adjunto.

Resultado de las votaciones:
Votación: Sr. De los Toyos, Sra. Larrauri, Sr. Benítez, Sra. Telleria, Sr. López de Guereñu, Sra. Garate.

Abstención: Sra. Astigarraga, Sr. Errasti."

PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA, 2016KO URTARRILETIK ABENDURA BITARTEKOA

COMPLEMENTO PRODUCTIVIDAD ENERO A DICIEMBRE 2016

| IZENA | GUZTIRA % | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| Nombre | Total % | Importe |
| Joaquín Hernández | 87,5% | 1.142,62 |
| Julio Puelles | 75,0% | 979,40 |
| Victor Delgado | 87,5% | 1.276,92 |
| Alberto Burunza | 75,0% | 979,40 |

| | | |
|---|---|---|
| Manuel Cabo | 87,5% | 1.276,92 |
| Jose Antonio Fernández | 87,5% | 1.276,92 |
| Javier Azpiazu | 87,5% | 1.276,92 |
| Sabino Loiola | 75,0% | 1.094,50 |
| Francisco Fernández | 75,0% | 1.094,50 |
| Cirilo Mellidez | 75,0% | 979,40 |
| Igor Astarloa | 75,0% | 1.094,50 |
| Juan Luis Baglietto | 75,0% | 1.094,50 |
| Iñigo Arregui | 75,0% | 1.094,50 |
| Mohamed el Hassouni | 87,5% | 1.142,62 |
| Jose Antonio González | 75,0% | 1.094,50 |
| Josu Garate | 75,0% | 979,40 |
| Gorka Santín | 75,0% | 979,40 |
| Mª Romero Bernedo | 62,5% | 816,16 |
| Igor Irazabal | 75,0% | 1.094,50 |
| Oscar Hurtado | 87,5% | 1.209,72 |
| Olaia Artetxe | 75,0% | 979,40 |
| Oier Cerrejon | 87,5% | 1.276,92 |
| Txomin Flores | 75,0% | 979,40 |
| Santiago Baglietto | 75,0% | 1.094,50 |
| Albino Vieites | 75,0% | 1.094,50 |
| Ander Martín | 100,0% | 1.459,34 |
| Esteban Iparaguirre | 75,0% | 1.094,50 |
| Ahmed El Aissiati | 100,0% | 1.305,86 |

PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA, 2017KO URTARRILETIK ABENDURA BITARTEKOA

COMPLEMENTO PRODUCTIVIDAD ENERO A DICIEMBRE 2017

| IZENA | GUZTIRA % | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| Nombre | Total % | Importe |
| Joaquín Hernández | 87,50% | 1.154,05 |
| Julio Puelles | 75,00% | 989,19 |
| Victor Delgado | 87,50% | 1.289,69 |
| Manuel Cabo | 100% | 1.473,93 |
| Jose Antonio Fernández | 100% | 1.473,93 |
| Javier Azpiazu | 87,50% | 1.289,69 |
| Aitor Olaetxea | 87,50% | 1.289,69 |
| Francisco Fernández | 75,00% | 1.105,45 |
| Igor Astarloa | 87,50% | 1.289,69 |
| Juan Luis Baglietto | 75,00% | 1.105,45 |
| Iñigo Arregui | 75,00% | 1.105,45 |
| Jose Antonio González | 75,00% | 1.105,45 |
| Juan Carlos Rodriguez | 75,00% | 989,19 |
| Mª Romero Bernedo | 75,00% | 989,19 |
| Igor Irazabal | 75,00% | 989,19 |
| Oscar Hurtado | 87,50% | 1.221,82 |
| Olaia Artetxe | 75,00% | 989,19 |
| Josu Garate | 75,00% | 989,19 |
| Oier Cerrejon | 87,50% | 1.289,69 |
| Txomin Flores | 75,00% | 989,19 |
| Alberto Burunza | 100% | 1.473,93 |
| Albino Vieites | 75,00% | 1.105,45 |
| Gorka Santin | 75,00% | 989,19 |
| Ander Martín | 100% | 1.473,93 |
| Esteban Iparaguirre | 75,00% | 989,19 |
| Ahmed El Aissiati | 100,00% | 1.318,92 |

Lamarain Cobo andreak hartu du hitza. Adierazi duenez, puntu honek hainbat zalantza sortzen dizkie eta argi esan behar dute: uste dute Langileria Sailean igartzen direla argien PSOEk Udalean jarraian daramatzan hogeita hamar urteak; eta begi bistan daudela urteetako ohitura desegokiak eta bizioak.

Urte hauetan, jarraitu du, egokiak ez diren gauza asko egin dira; ondo ez dauden gauza asko ikusi dira, nahiz eta aurreko agintaldiaren herentzia izan.

Bere ustez, langileriaren alorrean, oso garrantzitsua da seriotasunez eta objektibotasunez aritzea, ezin da erakunde publiko batean enpresa pribatu baten gisara jardutea, eta hala salatu dute hainbat aldiz.

Bestalde, jarraitu du, ez dute ulertzen halako lan-zama duen sail batean nola ez den teknikari arduraduna lan horretara dedikatzen ehuneko ehunean.

Aztergai den puntuari dagokionez, uste dute bere garaian produktibitate-osagarri hori mahukatik atera zutela Brigadako plantillari igoera homogeneo bat saihesteko eta hondarrak banatu zirela Brigadako plantilla pozik edukitzeko; baina kontrakoa lortu dela, osagarri hori gatazka-iturri baita Brigadako plantillan.

Interviene la señora Lamarain Cobo quien afirma que este punto les origina muchas dudas y que lo van a decir claro: consideran que el Departamento de Personal es donde más se notan los treinta años continuados del PSOE en el Ayuntamiento, y que quedan en evidencia los malos hábitos y vicios adquiridos durante años.

En estos años, prosigue, se han hecho muchas cosas que no son adecuadas, se han visto muchas cosas que no están bien, aunque sea herencia de la anterior legislatura.

Añade que creen que es muy importante en esta materia de personal actuar con seriedad y objetividad, y que no se puede en una institución pública actuar como una empresa privada, como así lo han denunciado en varias ocasiones.

Por otra parte, continúa, no entienden como a un Departamento que tiene el trabajo y la carga que tiene, no esté dedicada la técnica responsable al cien por cien.

En cuanto al punto en concreto, prosigue, consideran que en su día este complemento de productividad fue sacado de la manga para evitar aplicar una subida homogénea a la plantilla de la Brigada, y que fue un reparto de migajas para contentar a la plantilla de la Brigada; pero que se ha conseguido lo contario, pues este complemento es fuente de conflicto en la plantilla de la

Brigada.

Jarraitu du esaten mahai bat eratu dela lanpostuak baloratzeko, eta uste dutela osagarri hori lehenbailehen aztertu behar dela eta hasiera batean abstenitzeko asmoa bazuten ere, azkenean aldeko botoa ematea erabaki dutela, uste dutelako Brigadako plantillak ez duela zertan ordaindu gai honetan PSOEk izan duen kudeaketa txarra.

Continúa diciendo que hay constituida un mesa de valoración de los puestos de trabajo, que creen que este complemento hay que analizarlo cuanto antes y que aunque en un principio pensaban abstenerse en el punto, al final, han decidido dar el voto a favor porque consideran que la plantilla de la Brigada no tiene por qué pagar la mala gestión del PSOE en este tema.

Ondoren, Garate andreak hartu du hitza; adierazi du bere Taldeak, Batzordean adierazi zuen bezala, aldeko botoa emango duela.

Lamarain andreak esandakoaren haritik, esan du bere Taldeak ere adierazi zuela osagarri hori agian plantillaren parte bat pozik edukitzeko egin zela; baina, batez ere izan zela absentismoa Brigadan oso altua zelako eta neurria hartu zela hori konpontzeko.

Jarraitu du esaten Batzordean ere komentatu zutela ez zutela ezagutzen zein zen absentismoaren kopurua, eta interesgarria izango litzatekeela jakitea bai Udal osoaren absentismo-portzentajea bai Brigadarena, hala egiaztatzeko ea osagarri hau ezartzea baliagarri izan zen.

Interviene a continuación la señora Garate; quien afirma que su Grupo, tal como indicó en la Comisión, va a votar a favor.

Añade que en relación a lo dicho por la señora Lamarain, también su Grupo indicó que este complemento igual fue para contentar a parte de la plantilla; pero que sobre todo fue porque el absentismo en la Brigada era muy alto y se adoptó esta medida para arreglarlo.

Prosigue afirmando que también comentaron en la Comisión que desconocían la cifra del absentismo, y que sería interesante disponer del porcentaje tanto del absentismo de todo el Ayuntamiento como del de la Brigada, para así comprobar si la implantación de este complemento resultó válido.

Alkate jaunak baieztatu du absentismodatuak inolako arazorik gabe eman dai-

El señor Alcalde afirma que los datos de absentismo se pueden facilitar sin

tezkeela; are gehiago, uste zuen ematen zirela, Batzordearekin akordio batzuetara iritsi zirelako Estatuak egindako murrizketak berreskuratzeko, eta akordio horien artean zegoen baja-egoeran dauden langileen soldataren ehuneko ehuna ordaintzea, absentismoak ez badu gainditzen portzentaje jakin bat.

ningún problema, y que incluso pensaba que se facilitaban, pues se llegó a unos acuerdos con el Comité para recuperar los recortes que había implantado el Estado y entre estos acuerdos estaba el abonar el cien por cien del salario a los trabajadores en situación de baja, si el absentismo no supera un determinado porcentaje.

Jarraitu du esaten osagarria jartzearen arrazoia bi gai horien arteko nahasketa bat izango zela, baina funtsean bi kontu horietako bakar bat ere ez dela nahikoa arrazoi; izan ere, ezin da lotu produktibitatea absentismoarekin ezta mailak asetzearekin ere, kontu desberdinak direlako; eta horregatik, langile bakoitzari portzentaje bat ezartzen zaio bere produktibitatearen arabera.

Prosigue afirmando que el motivo por el que se puso este complemento sería una mezcla de las dos cuestiones, pero que en el fondo ninguna de las dos cuestiones son motivo para hacerlo, ya que no se puede vincular la productividad al absentismo, ni a una satisfacción de niveles porque son cuestiones diferentes; y que por ello, a cada trabajador se le establece un porcentaje, según su productividad.

Amaitu du esaten osagarria adostu zenean alderdi bakoitzak bere arrazoiak zituela, gainera gai baketsua izan zela, eta, nolanahi ere, berak uste du osagarri hori lausotuta edo geratuko dela, lanpostuen mailak berrikusteko prozesua amaitu eta gero.

Finaliza afirmando que cuando se pactó el complemento, cada parte tendría sus motivos, que además fue un tema pacífico, y que no obstante, entiende que este complemento quedará absorbido o difuminado después del proceso de revisión de los niveles de los puestos de trabajo.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Es-

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larraña-

cribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo - Abanzabalegui Arangurenek delegatutako botoa ere eman du-, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Aguirre Unceta (IRABAZI).

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta arratsaldeko seiak laurden gutxi izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honetaz, nik Idazkari Orokorrak fede ematen dudalarik.

ga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila e Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo - quien ejerce también voto delegado por Abanzabalegui Aranguren-, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Aguirre Unceta (IRABAZI).

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diecisiete horas cuarenta y cinco minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.